



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN

BEHATOKIA

OBSERVATORIO DE DERECHOS LINGÜÍSTICOS

OBSERVATOIRE DES DROITS LINGUISTIQUES

OBSERVATORY OF LINGUISTIC RIGHTS

UMEAK EUSKARAZ INSKRIBATZEKO PROZEDURA

2007ko abenduaren 19an, lehen aldiz, ume bat euskaraz erregistratzea lortu ahal izan zen Aretxabaletako Erregistro Zibilean. Hori lortzeko bidea ez da samurra izan, eta hainbat oztopo burokratiko gainditu behar izan dira. Hartara, umea jaio baino bost hilabete lehenago ekin zitzaion prozedurari.

Izan ere, 2005eko ekainaren 22ko 12/2005 Legeak inskripzioak euskaraz egiteko eskubidea aitortu arren, eskubide hori gauzatu eta bermatzeko mekanismorik ez dute abian jarri administrazioek. Are gehiago, argudio onartezinak erabili izan dituzte: legea garatu beharra dagoela, egokitzeko denbora behar dela, Euskararen Legea bera aldatu behar dela...

Erregistro liburu ofizialak, honezkero, katalanez eta galegoz daude eta, ondorioz, inskripzioak hizkuntza horietan egin daitezke; aldiz, oraindik Erregistro Zibileko Liburu ofizialak ez daude euskaraz. Beste behin itzaroteko eta pazientzia izateko esan zaigu Administrazioetatik. Hala ere, Behatokiak 2007ko abuztuan abian jarri zuen espedienteak ez zuen itzaroterik; izan ere, umea abenduan jaiotzea espero zelako eta eskubidea berma zekion eskatu genuelako. Alegia, umeari ezin esan ziezaiokeen ez jaiotzeko, harik eta liburu berriak euskaraz egon arte.


Gauzak horrela, eta hamaika eskari eta alternatiba aurkeztu ostean, lortu egin dugu umea euskaraz erregistratzea, eta horrek hurrengo umeak inskribatzeko aukerari atek zabaldu dizkio, honez gero, aurrekaria ezarri dugulako.

Argitu beharra dago, inskripzioa Erregistro Zibileko Liburu ofizial batean egin beharrean, Erregistro Zibileko Liburu berezi batean egin dela. Liburu berezi horrek ofizialaren balio eta eraginkortasun juridiko bera dauka, Erregistro Zibileko arduradunak agindu baitu Liburua egitea eta zabaltzea, haren baimen eta oniritziarekin egin baita inskripzioa euskaraz, eta Erregistro Zibileko Legeak eta Erregelamenduak babesten duelako inskripzioa modu horretan egitea.

Jarraian, umea euskaraz inskribatzeko prozedura jaso dugu. Segurki, oztoporen bat jartzen saiatuko dira, eta horrexegatik denboraz egiteko eskatu nahi dizuegu. Prozedura oso sinplea da, baina gainean egon beharko dugu. Kontuan izan, umea behin besterik ezin dela erregistratu eta horretarako epea dagoela jaiotzen denetik aurrera; beraz, komenigarria da jaio aurretik guztia lotuta izatea.

1. ESKAERA izeneko **dokumentua ireki** eta bete. Bertan, umearen gurasoen **datuak eta umea noizko espero den idatzi** behar da.
2. Dokumentuaren goialdean eskaera zein erregistrori zuzentzen zaion bete beharko da (haurraren jaiotza inskribatuko den Erregistro Zibila).
3. Dokumentu horretan euskaraz erregistratzeko eskaera egiten dugu. Horixe da geure eskakizuna. Euskarazko inskripzioa euskaraz dagoen Liburu ofizial batean egiteko eskatuko dugu. Hala ere, jakin dakigunez ezintasun materialak daudela argudiatuko dutela, ordezeko eskaera bezala, euskarazko liburu berezia zabal dezatela euskaraz erregistratu nahi duten gurasoentzat.
4. ESKAERA delako **dokumentua bete ostean, bi kopia atera eta bi gurasoek sinatu** behar dute.
5. ESKAERAREN bi kopiei Bergarako Erregistro Zibileko Epaileak emandako **Autoa erantsi, (autoa izeneko dokumentua)**.
6. Ondoren, inskripzioa egiteko asmoa dagoen erregistro zibilera eraman, eta **sarrera emateko eskatu**. Idatzi bat Erregistro Zibilean geratuko da eta bestea (erregistroaren zigilua duen kopia) gorde eta Behatokira bidali, faxez edo posta elektronikoz jarraipena egin ahal izateko
7. **Erantzunaren zain** egon, eta erantzuna jaso bezain laster jarri **harremanetan Behatokiarekin** eta bidali erantzuna faxez edo posta elektronikoz. Jasotako erantzunaren arabera, zer egin eta nola egin baloratu eta erabakiko dugu.
8. Denbora tarte batean erantzunik jaso ezean, edota haurra jaiotzea espero den data gainean badago, edo jaio bada, eta **erantzunik jaso ezean, jarri harremanetan Behatokiarekin**, beste idatzi eredu bat prestatu eta lehenbailehen aurkezteko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 11n



Paul Bilbao Sarria
Zuzendaria

Zalantzarik izanez gero, jar zaitetz gurekin harremanetan:

Telefona: 948 146 172

Faxa: 948 123 743

Posta elektronikoa: pbilbao@behatokia.org